

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Urtarrilak 4, 90. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Umeen  
Gabonetako parkea  
Kiroldegian

# Txikilandia



## HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazloak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



# EYA

## ELEKTROTRESNAK

Iturriotz 21, tfnoa: 79 03 84  
Erdiko kale 27, tfnoa: 79 13 79




**77 08 15**

## LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ



## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94

**Guk ere ikasten dugulako,  
kalitatez irakasten dugu**

Formazio saio bat egiten ari garenez,  
eskolak hilaren 8an hasiko dira berriro



SAN FRANTZISKO XABIER  
IKASTOLA

# ASAGABASTER

## JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen  
aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



## **ARRASATE PRESS**

**ASTEKARIA**

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetak:**

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Arrasate, 5.000 urte barru

**E**z dakit irakurlea gai izango ote den, 5.000 urte barru gure Arrasate bihotzekoa orduko mundrautarak nola "ikusiko" duten asmatzeko. Neri oso zail egiten zait; ezina. Asmakizunetan hasi bezain laster zalantza eta galdera askok gainditzen naute. Batzuek, teknikoak; konplikatuena, aldiz, orain gure oinek zapaltzen duten lurralde honetan 7000garren urtean inor eta ezer izango ote den arduraz erlazonatutakoak dira.

Lehendabizikoz, auskalo nolakoak izango diren LXXneko arrasatearrak! Ez dut uste zuri izaten jarraituko dutenik. Garai hartan, munduko gizaki guztiok bezala, azal kolore berdinekoak izango ditugu gure ondorengoak, kafesne ubel antzerakoak, gutxi gorabehera. Beltz eta laru koloreko herriek zeharo azpiratuko dute gaur eguneko gizon zuriaren manua eta nahasketa horretatik sortuko den arrazak behin eta betiko aginduko du lur gainean eta itsas-sakontasunetan. Noski, ez dira euskaraz mintzatuko, ezta espainieraz ere. Gure egunotako hizkuntza kulto eta indartsuak oro desagertuko dira, ziur aski, ekialde urruneko mintzairaren batek nagusitasuna hartuko duen artean.

Beraz, ordukoak nola irudikatzen zail zaidalarik, atera kontua zelan iger nitzakeen haiek gurekiko izango dituzten eritziak! Eta, hala eta guztiz ere, gehiegi suposatzen ari naizela aurreratu behar dut, inork ezin bait

dezake ziuarta bost mila urte pasatu ondoren Leintz bailarako kokaleku honetan inor biziko denik. Baina zilegi bekit asmamenari hegoak ipintzea eta noan gogo-bideetatik zehar, ez dakit noraino...

Hotzikarak sortzen dizkit, eguneko gure eraikin dotore eta bikainen arrastorik ez dutela 7000garren urteko arrasatearrek izango pentsatzeak. Erdi Aroko harresiak azaldu direnean pozik jarri gara denok... eta duela 600 urtetako gauzak dira. Zernolako zirrara sentituko dute LXX garren mende-koek, gure oraingo Udaletxe ederraren aztarnekin topo egitean? Jakingo al dute zertarako generabiltzan Monterron Jauregia, Zigarrolako Kiroldegia, edota Lan Kide Aurrezkiaren Olandixoko egotza nagusia?

Beharbada, laguntzatxoren bat luzatu beharko genieke gure ondorengoei, toki egoki bat prestatuz, oraingo datu eta erreferentziekin. Lur azpiko bunkerren antzeko bat, Udalaitez-Murumendi-Krutzetxiki hiruangeluko puntu zehatz batean kokatuta, ikerketa geofisikoak adieraziko lukeen aproposenean, hain zuzen.

Bost mila urte barru, gure izakerari buruzko argibideak eskuratuko balituzte arrasatear haiek, turismorako bazter ezin hobe bihurtu ahal izango lukete gure Arrasate hau. Gutxi gorabehera, Egiptoko piramideekin gertatu zen bezala.

*Jose Mari Velez de Mendizabal*



**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

**Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak**

Legarreko pabilloi industrialia  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

**Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k**

**3.500 pta.tan**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

**Botikarioei**

Urte berriak ekarri duen notizia batek bereziki harritu nau, goardiako farmazietan egon den aldaketak hain zuzen. Orain arte goardiako farmaziarren beharra edukiz gero, ez zegoen herritik atera beharrik, baina dirudie-nez hemendik aurrera gauzak asko aldatuko dira. Izan ere, Arrasate eta Bergarako botikarioek bat egin dute, eta gauez herri bakoitzean farmazia bat goardian egon beharrean, herri bientzat bat egongo da.

Demasa, ez? Imajinatu besterik ez dago: egunen baten botikaren baten beharra daukazu, eta egunkarian begiratu ondoren, botika horren bila Bergararaino joan beharra daukazula enteratzen zara. Dena dela, joan egin behar dela eta etxetik ateratzen zara. Kotxea hartzen duzu (edukiz gero, zeren ez badaukazu asuntua asko korapilatzen bait da) eta Bergararuntz abiatzen zara. Bergarara iritsi eta farmaziaren bila hasi zara, ezagutzen baduzu aurkituko duzu, baina norma-lean denbora eta buelta piloa eman beharko dituzu aurkitu aurretik. Arrasatera bueltatzen zarenako denbora eta diru mordo gehiago

gastatuak izango dituzu. Ez dago esan beharrik, edozein bergararri gauza bera gertatuko zaiola Arrasatera etorri beharra izanez gero.

Zergatik aldaketa hori? Bada, ideiarik ez. Neurri berri honen buru-gabekeria ikusirik, botikariei berriro zeudenera bueltatzea eskatzea ez litzateke gehiegi izango. Bestela, beste norabait jo beharko da.

*Jotaerre*

**Zorionak Benidorm-etik**

Arrasate Press-eko zuzendari eta astekari hori argitaratzen dezuten lagun denori. Agur, Gabon eta Eguberri zorionsu bat opa dizuegu Benidorm-etik. Hemen gaude gu, gure hezur zaharrendako eguzki bila, baina oraindik ez dugu gauza handirik hartu. Ihes egin genuen horko elur eta hotzetatik, baina hemen ere zakurrak ortozik. Besarkada handi bat eta jarraitu lan eder horretan.

*Miren V. Mendizabal eta Pedro Zumelagak*


**Datorren astean jai**

Gabonak pasatu diren honetan, astebeteko oporrak hartuko ditugu, baina:

- 1) ATBn ez da emisiorik emango 7tik 13ra bitartean. Tarte horretan aldaketa tekniko batzuk egiteko aprobetxatuko dugu. Urtarrilaren 14ean, bada, ATB berriro zuen pantailetan izango da.
- 2) Arrasate Pressen jai hartuko dugun arren, urtarrilaren 11an, ale mehe eta berezia jasoko duzue zeuen etxeetan, bertan aldizkariari buruzko hainbat xehetasun emango zaizkizuelarik. Urtarrilaren 18rako betiko moduan izango gara zuekin. Ondo izan.



# Zein izan da zuretzat urteko pertsonaia?



**Jaime Ibabe**  
(Langabea)

Gorbachov edo ....  
Gauzak hobetu egin ditu,  
aurreratu, landu.



**Miren Ibabe**  
(Langilea)

Mundu mailan  
Gorbachov, Golkoko  
arazoan izan duen  
garrantziagatik.



**Maria Lasagabaster**  
(Jubilatua)

Politikan denak dira  
inportanteak, denek dakite  
asko eta. Niretzat  
inportanteena familia izan  
da, ondo egiten didate eta.




**Juan Jose Uribarren**  
(Kooperatibista)

Lehengotakoa  
Gorbachov izango zela uste  
dut. Euskal Herrian, berriz,  
petsonaje inportanteena  
Joxe Miel Barandiaran.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORIASATE**

# Memesa

## 79 42 22

# KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

# NAROKI

**GOI MAILAKO  
BITXITEGIA**

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

**ERLOJUTEGIA**





**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZAK**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 81 77
--	----------



**4**

**OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro III", 7 eta 9.30etan. Novedades. "Dark Man", 10.30etan.
- Zine-kluba: "Terrorificamente muertos", Amaia antzokian gaueko 10.30etan.
- Txikilandian, "Tunantes del Norte" taldearen antzerki saioa, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**5**

**LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro III", 5, 7.30etan eta 10.30etan. Novedades. "Dark Man", 5 eta 7.30etan.
- Txikilandian, oparien zozketa eguerdiko 1ean.
- Errege kabalgata, arratsaldeko 6etan.
- "Oyster Band" eta "Celtas Cortos" taldeekin folck jaialdia kiroldegian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

**6**

**IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro III", 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades. "Dark Man", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- AUKEA sarien banaketa kiroldegian, eguerdiko 1ean.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

**7**

**ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro III", 7 eta 9.30etan. Novedades: "Dark Man", 7.30etan.
- Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan tapiz, makrame, tarazeak, eta tridimensionalak, 3.30etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

**8**

**ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro III", 7 eta 9.30etan.

- "Pertsonaren garapen psikologikoa" izenburupean ikastaroa AEDn, arratsaldeko 3etan.
- FGH zentruan filosofi eta elikadura ikastaroa, 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**9**

**ASTEAZKENA**

• • •

- Santamasetako argazki lehiaketaren erakusketa Monterronen.
- FGH zentruan psikologia eta sexualitate ikastaroa, 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**10**

**OSTEGUNA**

• • •

- Landareei buruzko hitzaldia AEDn, arratsaldeko 4.15etatik aurrera.
- FGH zentruan puntua, gakorratza eta erraziri ikastaroa.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**Kirol Agenda**

**SASKIBALOIA**

• • •

- Centraljet Euskal Air eta Amigos del Baloncesto taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 6etan.
- Gabonetako saskibaloia txapelketaren azken partidua, Musakolako kiroldegian, igandean eguerdiko 12.00etan.

**FUTBOLA**

• • •

- Mondra eta Zarautz taldeen arteko futbol partidua, Atxabalpen arratsaldeko 3.30etan.

**MENDIA**

• • •

- Gaverniera, igandean goizeko 8etan, Garibai geltokitik.





Gauetz zerbitzu gutxi egiten direla jarri dute botikariek arrazoizat

## Goardiako farmazietan aldaketak

### Gaueko zerbitzu bakarra Arrasate eta Bergararako

Urte berriarekin batera, Goardiako farmazia bakarra izango da gauetz Arrasate eta Bergararako. Arrasateko zazpi farmaziek eta Bergarako bostek hartu dute erabakia eta Gipuzkoako botikarien eskolak bere oneritzia eman.

Goardia antolaketa ohizkoa izango da Arrasaten, baina gaueko zerbitzua, 10etatik goizeko 9etara bitartekoa, bi herrietako batean bakarrik egingo da, hilaren lehen hamabost egunetan Bergaran eta 16tik hil bukaerara Arrasaten.

Gauean egiten den zerbitzu kopurua euren eritziz urria dela argudiatuz eta Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat eskualdetan aspalditik zerbitzua eskualdetua dagoela esanez hartu dute erabakia Arrasate eta Bergarako botikariek. Botikarien kolegioak egindako ikerketa batek dioenez, 100 bizilaguneko farmazia bakarra da batazbesteko egokia, eta kopuru horietan oinarritu dira.

Ertzaintzak farmazien gaueko erabilpenari buruz egindako ikerketa batek dioenez, bestalde, astegunetan lau edo bost bisita izaten dira gauetz botiketan, eta asteburuetan ere antzera, nahiz eta ostiraletan jendeak gehixeago jo botikategira. Kontuan izan behar da duela bi hilabete arte ertzainen laguntza behar zela botikara joateko, bestela ez bait zuten aterik irekitzen farmazian. Ertzaintzak utzi egin dio, hala ere, zerbitzu hori eskaintzeari, eta ez dela euren kompetentzien barruan sartzen, arazoak herri bakoitzeko zerbitzua eskatzen duela erantsiz.

Aretxabaletan eta Eskoriatzan goardiako botikariak gaua bere etxean ematen duenez, ez dute herri bi horietan zerbitzuaren aldaketa egin beharrik ikusten, eta horregatik jo dute elkarrengana Arrasate eta Bergarako botikariek txandak antolatzeke.

## Usteak uste

**N**ormalean ateratzen ditugunekin alderatuz gero, oso meheak irten zaizkigu joan den asteko Arrasate Press eta baita eskuetan duzuen hau ere. Arrazoia Gabonetako egutegian dago. Urtekari potoloa egiteko ordu piloa sartu behar izan ostean, ez zirudien zuzena gure langileak Gabonetako zubirik barik gelditzea. Ezta hiru astebezuek Arrasate Pressik gabe geratzea ere. Hori dela eta, hiru aste berezi horietan aldizkari meheagoa ateratzea erabaki genuen. Horixe da azken bi ale hauetan erreportaiak edo elkarriketarik ez aurkitzeko arrazoiak.

Datorren astean gu ez gara hemen egongo, oporretan izango gara eta. Hala ere, aprobetxatu egingo dugu Arrasate Pressi buruzko zenbait datu jakin dezazun. Orain urtebete Lan Kide Aurrezkiaren Marketing sailak Arrasate Pressi buruz egindako ikerketa lanaren hainbat datu, astekariaren onespina eta zabalpenari buruzkoak, emango dizkizuegu; publizitatearen gaineko informazioa, Arrasate Press nola egiten den, etab. Ez da, inondik inora ale normala izango, baina ineteresgarria bai.

Esan bezala, datorren astean hortik zehar ibiliko gara, mendi, hiri, elur eta liburu arteko usain artean, bakoitzak bere aukerako atseden-lekuan, ea indarberritzen garen urteari adorez eta irudimenez ekiteko. Ondo izan eta ikusi arte.

Joxe Aranzabal







Sebero Altuben kokatu zen erakusketa

## Publizitatearen %80a erdaraz

*AEDk eskuorritz erakusketa egin zuen*

Pasa den abenduaren 23an, AEDk Sebero Altube plazan eta 22 metro telaz baliatuz, 2.000 eskuorritz osatutako erakusketa egin zuen. Telaren alde batean erdaraz idatzitakoak jarri zituzten, 1.600 gutxi gora behera, eta gainontzeko 400ak, elebietara edo euskaraz idatziak, bestaldean jarriak izan ziren.

AEDk, aipatutako eskuorriak Arrasateko etxeetako buzoietatik jaso zituen, bertako merkatariek egindako publizitate orriak zirelarik. Bildutako orriekin AEDk, jakiteko euskararen presentzia zenbatekoa den, neurketa egin zuen,

emaitza hauek atera zirelarik: eskuorrien %80a baino gehiago erdera hutsean edo gehienbat erderaz dago, euskaraz edo elebidunez daudenak %20ra iristen ez direlarik.

Neurketa hori egin den lehen aldia dela eta, AEDk ez du oraingoz inor salatzeke asmorik, baina merkatariei egiten duten publizitatean euskarari presentzia duina ematea eskatzen die, gainontzekoei euskararen aldeko jarrera aktiboa hartzea eskatzen zaielarik, publizitatearen eragina handitzat jotzen bait da.

### Errege kabalgata

Urtarrilaren 5ean iritsiko dira Arrasatera Errege Magoak.

Hori dela eta, 14 urtetik gorako gazteei dei egiten die antolakuntzan dabilen gazte taldeak errege bezperan antortxa eta tanborrekin kaleetan zehar ibiltzeko. Hartarako prest daudenak ager daitezela hilaren 4ean arratsaldeko 7etan San Viator ikastolan.

### Argazki eta komikiak

AEDren aurtengo lehiaketako lanekin erakusketa ipini da aste honetan eta datorren aste gutzirako, Udaletxeak Erdiko kalera begira duen kristalera. *Arrasate bazter izkutuak* izenburua du argazki lehiaketak eta *Arrasateko gazteria* komikiekin egin denak, eta sail bi horietako irabazkeen lanak izango dira ikusgai.

### JAIOTZAK

Fernandez Urizar Haizca *Edurne*, abenduaren 14an.

Fernandez Urizar *Gladys*, 14an.

Labaca Tribiño *Imanol*, 14an.

Hernandez Pozo *Gorka*, 18an.

Varela Lazpita *Patrizia*, 20ean.

Garcia Bilbao *Eider*, 21ean.

Zeziaga Casado *Oihane*, 21ean.

Luarizaristi Sierra *Oihane*, 22an.

Altube Garcia *Nahia*, 24ean.

San Miguel Lizarralde *Iraia*, 24ean.

Garro Garcia *Amaia*, 26an.

### EZKONTZAK

Jose Luis Diosdado & Elena Muñoz, 15ean. Elizez.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

## ECUADOR

Kontzesiño 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE



Mila hitz baino  
argiagoa da  
irudi bat



## GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

# beatriz

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE



# SASKI NASKI Lehiaketa 1990


## OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

## Jose Aranzabal


TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



**ASTE HONETAKO IRABAZLEAK**

- ▲ Galder Kabiketa
- ▲ Aritz Iñurritegi
- ▲ Iñaki Arana

## J. URIARTE



**Ze izen dute errege magoek?**

ASTE HONETAKO GALDERA

**SASKI NASKI ZOZKETAKO opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.**

**ERANTZUNA:** .....

Izena: ..... Helbidea ..... Tfnoa: .....



# IBM ESKAINTZA

## Ikasleentzat

## IBM PS/1

Bost minututan egingo zara jabe

Lanerako prest.

Edozeinek erabil dezake pantailaren azalpenekin, ordenadoreak gidatu egiten bait du lan egin ahala, informatikarriki jakin ez arren. Produktu mota berri honek bere baitan du software osoa, erraminta eraginkorrena bihurtuz.

## Softwarearen barruan

- **Microsoft works**  
Testu prozesatzailea, behar duzuna idazteko: gutunak, txostenak, liburuak etab.  
Kalkulu orria, aurrikuspenak, grafikoak, aurrekontuak etab. egiteko.  
Datu basea, nahi duzun informazioarekin lan egiteko.
- **PS/1ari buruzko programa eta funtzionamendua.**
- **Microsoft Workseko tutoriala.**
- **Basic programaziorako lengoia.**
- **IBM DOS 4.0 Sistema Operatiboa.**

- **LogicControl Softwarea**  
**Kontabilitate pertsonala.** Etxeko gastuak, sarrerak, banku kontuak, aurrikuspenak etab. kontrolatzeko modua ematen du. Agenda, kalkuladora eta egutegia ere baditu.  
**Informatikarako sarrera.** Oinarriko Informatikari buruzko ikastaro autodidaktikoa, zure ordenadoreak nolá lan egiten duen

ikasteko, lan egiten den artean makinarekin praktika eginaz.

Gaur egun aurrezki kutxa eta banketxe guztiek berehala eskaintzen dituzte "mailegu pertsonalak" edo "familiarrak" eta horietan erraz sartzen da ordenadorea erostea. Egizu kontsulta zure banketxean.

## Ezaugarriak eta prezioak

Modeloa	RAM memoria	VGA monitorea	Disketera	Disko gogorra	Eskaintza prezioa
PS/1-134	1 MB	Kolorebakarra	1,44 MB	30 MB.	213.252,-
PS/1-234	1MB	Koloretakoa	1,44 MB	30 MB	257.463,-

- INTEL 80286tik 10 MHz Prozesadorea.
- Bi zapalgaitutako xagua.

- 102 teklatako teklatu handia.
- Sistema operatiboa.
- \*BEZ barne

PS/2 IBM 30-286+Sympphony = 296.351 pta.

**AZKEN EGUNA URTARRILAREN 8an**

**LOGIC CONTROL**

**Gasteiz Etorbidea 63,  
Tfnoa: 945 / 24 63 08  
GASTEIZ**





### Maizbide saritua

Igandean AUKEA sarien banaketa egingo da Musakolako kiroldegian, nolabait Arrasateko kirolari hoberena sarituz, eta aurtengoan Ignacio Maizbide izango da sari hori eramango duena. Maizbidek, atletismo munduan, denboraldi bikaina burutu du bai pisu eta baita txabalina jaurtiketan rekordak ezarriz. Beraz, zorionak Maizbide eta gainetiko kirolari guztiei.



### Mondrak galdu

Tolosarako bidaia ilusio handiz egin zuten mondragoetarrek, emaitza positiboa ekartzekotan joan bait ziren, baina azkenean ezin izan zuten ezer lortu. Mondragoetarrek ondo jokatu zuten arren, partidua gol bakar batez galdu zuten. Berdinketa lortzeko ahaleginak egin zituzten Mondrako jokalariek, baina alferrik, tolosarrek ondo defendatu zuten eta. Igandean beste bi puntu lortzeko aukera izango dute mondragoetarrek, nahiz eta Atxabalpeko bisitaria Zarautz taldea izango den, mailako hoberenetariko.

### Igartua Euskadiko txapeldun

Pasa den asteburuan, Arabako Araia herrian Euskadiko Ziklo Kros Txapelketak burutu ziren, eta bertan Iñigo Igartua bergararrak afizionatu mailako txapelduna izatea lortu zuen. Lehen itzulietatik frogako buruan egon zen bergararra, Duran, Eizagirre, eta Iurrebasorekin batera. Benito Duran, zaletu mailakoa hau ere, ez zen oso ongi aurkitu eta bertan behera utzi zuen lasterketa, era horretan Igartuari bidea libre utziz. Afizionatuen arteko lehena izateaz gain, Iñigo Igartuak Iurrebaso profesionala ere atzean utzi zuen, sailkapen orokorrean bigarrena izateko.




**ASEGURO ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



## txutxumutxuak

Julio Lasagabaster Villar atxabaltarra, 42 urte Argentinan daramatzana, bere jaioterrira itzuli da hiru hilabeteko oporrak igarotzera. Julio, Artabe baserriko semea da eta argazkian Azatza auzoko elizondoan ageri da. Egonaldi zoriontsuaizango al zuen! ▶



Juan Jose Mena gasteiztarra eta Luis Ignacio Ruiz de Alegria donostiarrak zeresan handia emango dute oraindik musikaren munduan. Gasteizko «Jesus Guridi» Musika-Eskolako Ikasleen Orkestraren zuzendaria lehena eta Arrasateko *Goikobalu* abesbatzarena bigarrena, pozik agertu ziren musika talde biek 29an emandako kontzertuaren ostean. Ez zen gutxiagorako izan, parrokia betetzen zuen jendeak gogoz txalotu bait zuen aurrerantzean Gabonetako Kontzertua bihurtzeko asmoa dagoen emanaldia.



Bisita arrarorik jasotzen dugu etxe honetan ere! Aste honetan, **Errege Magoak** izan ditugu Arrasate Pressen, esku hutsik bada ere. Astebururako etortzeko zirenak, aurrerata iritsi dira, eta Arrasate inguruetan dabilta. Hemen bukatu ote dute urtea? ▶



- |            |  |
|------------|--|
| ASTELEHENA | • Tapiza eta makrame. Idoia Ibañez.<br>• Tarazeak, tridimensionalak, etab. Beni Uzkiano. |
| ASTEARTEA  | • "Filosofi" ikastaroa. Asun Agiriano.<br>• Elikadura eta elikapena. Jone Astigarraga.   |
| ASTEAZKENA | • Psikologia eta sexualitate ikastaroa. Mari Karmen Zubillaga.                           |
| OSTEGUNA   | • Puntua eta gakorratza. Asun Mendizabal.<br>Erra-ziri ikastaroa. Idoia Ibañez.          |
| OSTIRALA   | • Sukaldaritza eta gozogintza.   |

3.30etatik 6.30etara.

Kurtso hasiera, urtarrilaren 7an. "Zorionak eta urte berri on".

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO  
ZENTRUA  
Santa Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59  
ARRASATE**





## txutxumutxuak

◀ Ezkerreko umea **Alexander** da, Arrasaten 1991.ean jaiotako lehen umea Urteberri eguneko arratsaldeko 5etan jaiotako **Maite Iribekanos** bergararra eta **Patxi Upategi** elorriotarraren bigarren haurra, eta 3,295 pisatzen zituen jaiotzean. Alboko gelan, 90eko azkena aurkitu dugu, **Michael, Rosi Sanchez** eta Monte Tabernako **Alejo Roperoren** lehen umea. Bi kilo eta erdi pisatu ditu mutikoak. Zorionak!



▲ Aste honetako Saski Naski lehiaketaren irabazleak argazkiko horiek ditugu. **Josune Ribera, Amaia Umerez** eta **Txaro Balanzategi** izan ziren erantzun zuzenen pilotik esku garbiak ateratako papertxoak bidali zutenak. Okendorenean jaso zuten.

▲ Santamasetan omenaldi beroa jaso zuen **Urtainek** arrasatearrendantik. Argazkian, Alkateak emandako plaka jasotzen ikusten dugu satisfetxo oso. Egun guztian jo eta sue ibili zen Lajarekin eta umore ederra duela erakutsi. Zorionak!

### Beste aktibitateak:

Astelehenetik ostiralera eta 6.30etatik 9.30etara.

- Sukaldaritza eta gozogintza ikastaroa.
- Elikadura eta elikapena: dieta orekatuak.
- Mantenimendu gimnasia.
- Filosofia ikastaroa.
- Eskulan tailerra: larru lanketa, esmalteak, tarazeak, tridimensionalak, etab.

"Zorionak eta urte berri on".

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO  
ZENTRUA**

**Santa Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59 ARRASATE**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu 24,  
Tfnoa: 79 70 36  
ARRASATE



**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



# Zer nahiago?

## Antton Abarrategi, "Hemen" kafetegikoa.

- **Colombiako kafea ala Brasilgoa?** Colombiako, askoz ere naturalagoa da eta.
- **Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Gizonezkoak nahiago, emakumezkoak umekin etortzen dira eta.
- **Kafe hutsa ala ebakia?** Ebakia eta kremaz.
- **Bideoa ala zinea?** Zinea, hobeto ikusten da.
- **Goizeko lehen orduak ala bazkalostea?** Goizean lan egitea nahiago dut, arratsaldean siesta.
- **Gabonak ala aste santuak?** Gabonak, alaiagoak dira.
- **Kafearekin croissant-ak ala boiloak?** Croissant-ak, zapore handiagoa daukate.
- **Tabernan, telebista ala musika?** Musika nahiago, telebistak tabernako giro guztia apurtzen du.
- **Gabonetan, bisigua ala bildotsa?** Bisigua, eta ahal izanez gero, angulekin.
- **Bidaiazteko, motxilaz ala maletaz?** Maletaz hobeto ibiltzen da.
- **Jaiotza ala arbola?** Jaiotza, politagoa da eta gainera egiteko orduan aukera gehiago ematen ditu.
- **Olentzero ala erregeak?** Erregeak, betidanik.
- **Rock-a ala trikitixa?** Rock-a dudarik gabe, AC-DC eta, gustatzen zaizkit, baina tabernan ezin ditut jarri.
- **Autoz ala oinez?** Komunera joateko ere, autoz.
- **Pilotan, eskuz ala palaz?** Eskuz gustorago ibiltzen nintzen, orain ez bataz eta ez bestiaz.
- **Dadoak ala kartak?** Kartak, joku gehiago egiteko aukera ematen dute.
- **Taberna ixteko ordua ala zabaltzekoa?** Zabaltzea nahiago, itxi orduko nekatuta egoten naiz eta.



# Zelebrequerixak

## AGURRA

**B**i urte oso osuak pasau die "Zelebrequerixak" izeneko txoko honekin hasi giñanetik. Astero astero hiru edo lau bat zelebrequerixa, batzutan zelebriauak beste batzutan baiño. Baiña hasittako gauza guztiak izaten dabe akaberia eta honek pe bai. Itturrixa agortu egin jat eta atsedentxo bat ondo etorriko jaku danoi. Ezin berriro aittatu barik laga nundik jaso izan dittuten zelebrequerixok. Alde batetik eskribiduta zerenak moldatu dittut: Juan San Martin-en "Zirikadak" eta "Eztenkadak", Jon Etxaide-ren "Pernando Plaentxiarra" eta "Eibar" aldizkaria. Baita Txomin Amazorrairen "Ixkirimiri"ren bat ero beste sartu dot.

Beste alde batetik lagunartian entzundakuak pasau die papelera. Eskerrak pa danei. Eztadila umoreik galdut!

Beti defendidu izan dot bertako, herriko euskeran be eskribidu bihar dala. Badakit enaizela hala pentsatzen daben bakarra eta espero dot izango dala jentia orri hau hemengo euskeran beteko dabena, ondo asko gainera.

Hurrengo arte ba. Urtea ondo amaitu eta berrixa hobeto hasi.

*Juan Martin Elexpuru*

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**KILI-KOLO**  
Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE



# Arrasatek badu urtekaria.

**B**ertan, 100 mondragoetar ezagun nortzuk diren ikusi ahal izango duzu, aurtengo berririk garrantzitsuenak, espezialisten analisiak, inkestak, txutxumutxuak, argazki mordoa... eta askoz gehiago.



**EROS  
EZAZU  
AGORTU  
BAINO  
LEHEN!**


**ARRASATE  
PRESS:  
MOLDEAK  
APURTZEN  
DITUGU**

**1.000 pta.**





**ALMEN IKASTOLA**



**JOKUA**

Ea hizki hauek erabiliz zenbat hitz asmatzen

dituzun:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

*Martinek gorputza baino*

Behin batean barjiren gurazko batzuk, urme bat euki zuten eta Martin ipini zioten izena.

Bi urte zituenean amak erantzion:

-Eran, ama, ama, ama!

Eta Martinek ez zion erantzuten.

-Orduan eran: aita, aita, aita!

Eta ez zion erantzuten. I

Orduan medikuaren saso

eraman zuen eta medikuak

erantzuen:

-Urme honak erjindu hitzegin orduan amak erakaturik erantzuen:

-Ain trebea, ain arina eta erjindu hitzegin. Hau zoritzarria!

Best urte zituenean ikastolara eraman zuen eta andereñoari erantzion:

-Ginaria seipen oso trebea da baino erjindu hitzegin.

Andereñoak idazten erakutsi zion eta orduan Martinek II

idea bat euki zuen.

Leere gorputzaren baliaturz hizkiak egites.

Ura nahi zuenean:



-Honak ura nahi du tsat, n zitem lagunek.

Ikastolatik urten zenean zirkora joan zen eta artistarik onena bersuzen. III



**ALMEN IKASTOLA**

*2. Maila*

poza.

-gaur-zopa-apo-puroa-


atzo-agortu-gora-gau-

ur (a) -agur-putz (a) -

SOLUZIOA



*1. Maila*




**PUB HAIZEA**



**ENARA OSAGIRRIAK**

Maialako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32







Juventud Deportiva Mondragon. Iturripe, 1950

**H**amar urte pasatxo ziren gerra amaitu zela. Igandeetako bizimodua nahiko arautua egoten zen. Goizean meza nagusira joan -joaten zirenak-, txikito batzuk edan, hamabiak inguruan bazkaldu, kafea eta kopak edan, kartetan egin eta Mondrak etxean jokatzu gero, futbolera. Ostean txikiteoa, dantza egin plazan eta akaso zinera gauean.

Jende asko joaten omen zen orduan Iturripeko futbol-zelaira. Kanpoan jokatzea tokatzen bazitzaien, Bergaran

edo Elgoibarren esaterako, tren bereziak antolatzen ziren, mondragoetar zaletuak eramateko. Eta, diotenez, trenak itzuli arte bandak ez zion hasiera emango herriko plazako dantzaldiari.

Batzuetan urrutira joan behar izaten zuten: Aragoi, Lerida, Huesca, Santanderrera ... Horrelakoetan Aramaioko autobusean joaten ziren. Larunbat arratsaldean edo igande goizean irten eta askotan astelehen goizean itzuli, lanerako justu. Gutxi bihurtzen zen garai hartan, horixe zen jokalariek zuten alizientea: futbolari esker leku desberdinak ezagutzea.

Argazkiko taldeak 3. dibisioan jokatzeko zuten. Artea lehendakaria

Joxe Ubago zen eta entrenatzailea Joxe Errasti. Eskerretik eskuinera zutik, Jesus Moreno atezaina, Juanito Egidazu, Eli Bolinaga, Ignazio Zeziaga "Divino II", Eugenio Balzategi Erregetxo, Imanol Zeziaga "Divino I", Teodoro Zubizarreta Tololo, Jose Luis Kortabarria Txaiku, Luis Arregi, Fertxu Aranburu eta Gregorio Bolinaga.

Divino Iak Errealean jokatu zuen lehen mailan, Luis Arregik Logroñesen eta Erregetxo hirugarren mailako taldeetan ibilia zen, Errealaren fitxaz. Garai hartan sarritan jokatzeko zuten jokalariek 5.000 pta. inguru sari eta primatan irabaziko zituen urtean.

**ITURRIOTZ taberna**

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate






## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Urte hasiera honetan zeure izakera eta itxura fisikoak benetan kezkatuko zaituzte. Itxura aldaketa ez da hobekien menderatzen duzun gaia; izan zaitze zeu, ondorioak zeuk jasaten bait dituzu horrela izan ezean.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Bizi-bizi izango duzu intuizioa urte hasiera honetan Leo; ez da egongo, ez, adarra joko dizunik, berehala konturatuko bait zara zuregana joango diren guztien nondik norakoarekin. Duda-mudatan dagoen gai oro berehala gauzatu duzu.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Alaitasunez ekingo diozu urte berriari Sagitario. Ideia originalak izango dituzu arlo guztietan gero horien gauzatzea besteen esku egongo bada ere. Nahikoa izango duzu egiten duzunarekin.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Aspaldidanik estalita zeneukan nortasun maitagarri hori hasia da berriz ere azaltzen. Bizipoza sentitzen hasi zara berriz ere, eta urte hasiera hau guztiz liluragarria izango da zuretzat. Ordua zen, bai, eguzkia ateratzeko, bejondeizula!



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Etxe giroari, seme-alabei eta lanari eskainiko dizkiezu gehienbat urte berriko lehenengo egunak. Armonian egon daitezen saiatuko zara, hauek bait dira bizi izateko behar beharrezkoak dituzunak.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra


Lagun berri ugari egingo duzu urte hasiera honetan. Hauetakoren batekin erromantzeren bat izatea suerta liteke. Begiko izango zaituzte denek eta ez duzu isilean egoteko parada handirik izango. Aurtengorako helburu faltarik ere ez duzu izango.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Geldotuta zaudela nabaritu duzu, bai fisikoki, bai mentalki. Orain arte buruarekin landu izan duzu inguru eta ez zaizu bat ere gaizki etorriko sentimenduak lantzea. Beraz ezizu hartu zoritxarra balitz. Egongo da, bai, egoera hau eskertuko duenik.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Elkarrizketan oinarrituko dira urte hasierako lehen egunak. Komenigarri derituzo amaituta dagoen urtean izan dituzun hutsuneak betetzeari eta bai bikotearekin bai lagunekin. Hori zuzentzeko biderik egokiena elkarrizketa izango duzu.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Geldo-geldo ekingo diozu urte berriari, ohi ez bezala. Egunerokotasunean murgilduko zara batez ere, ez bait duzu izango horrekin apurtzeko grinarik. Ez zaizu bat ere gaizki etorriko lasaitasun piska bat; Hala ere, odola bizkorreko mediorekin bat bila ezazu.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Ohi ez bezala ipurterre egongo zara urte hasiera honetan eta benetan maite dituzunak nahiko ahaztuta izango dituzu. Egoera honek ez du luzaroan iraungo eta berehala etorriko zara zeure onera. Energiak alperrik ez erretzen saiatu.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Buru argi-argi izango duzu eta edozeri ekiteko ez zaizu faltako ez kemenik ezia indarririk ere. Ez da ez urte berriari ekiteko egoera txarra; hala ere egiezu jaramon pixka bat sentimenduei.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Kanpora begira hasiko duzu urtea Piscis. Zure barnea aztertzen ihardun duzu eta oraingoan kanpokoena aztertzen saiatuko zara. Hala eta guztiz

# HITZALDIA

- **Gaia: LORAK ETA LANDAREAK**
- **Emalea: Jakoba Rekondo**
- **Egunak: urtarrila 10 eta 17 (ostegunak)**
- **Ordua: 16.15etan**
- **Tokia: AEDn**
- **Antolatzailea: AEDeko Emakume Taldea**







# Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE



## ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

## ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxebehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

## JOSTEKO OIHAL DENDA

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETA



**MIKEL**

**Eskaiola, pintura eta  
kortxozko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



# **MUGARRI**

## **Berri-berriak**



**Escort**



**Orion**



**Ford modelo berriak**